

# IKASGELETARA ITZULTZEKO NEURRI NAGUSIEN LABURPENA

Segurtasuna eta Osasuna Hezkuntzan

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# EBALUAZIO DATAK

DBH 4.  
BATXILERGOA 1-2

DBH 4.  
BATXILERGOA 1-2

BATXILERGOA 2


2º BACHILLERATO

OHIKO  
AZTERKETAK

EZOHIKO  
AZTERKETAK

OHIKO USE PROBA

EBAU EXTRAORDINARIA



2



## OINARRIZKO ERREFERENTZIAK

- **COVID19-rekin bateragarriak diren sintoma argiak dituzten** ikasleek, irakasleek eta **gainerako langileek ez dute ikastetxera joan beharko.** Zalantzarik edo sintomarik izanez gero, komeni da ikastetxera joan aurretik tenperatura hartzea.
- **Gizarte-urruntzea** sustatu eta errespetatu behar da.
- Ikasle guztiek, irakasle guztiek eta ikastetxeko gainerako langileek **maskarak erabili** beharko dituzte ikastetxeko espazio osoan.
- Areagotu egin behar da **eskuak garbitzea**, eta ikasleek aldian-aldian garbitu behar dituzte eskuak, objektuak eta ukipen-gainazalak ukituz gero.
- **Garbiketa eta** desinfekzio-neurriak areagotuko dira eskola-esparru osoan (espazioak, tresnak eta/edo materialak).

## HEZKUNTZA JARDUERARAKO OINARRIZKO JARRAIBIDEAK

- Irizpide nagusia: **MALGUTASUNA, IKASTETXEAREN AUTONOMIA eta ERANTZUNKIZUN PARTEKATUA.**
- Ikastetxe bakoitzak, ikastetxearen autonomiaren, irakaskuntza ez-presentzialaren garapenaren eta ikasleen beharren arabera, nola itzuliko den eta garatuko den irakaskuntza jarduera erabakitzen du, Ikuskaritzaren oniritziarekin.
- **Zentrorra sartzeko kontrola:** zentroko zuzendaritzak behar bezala justifikatu, planifikatu eta baimendutako pertsonak bakarrik joan beharko dute zentrorra. Zentrotik kanpoko pertsonak (familiak...) hitzordua eskatu beharko dute.
- Familiei lehentasuna emango zaie, hauen ikasleek laguntza handiagoa behar dutenean.
- Kontuan hartuko dira eta malgutasunez jokatu da osasun-egoera ahulean dauden familien kasuan.
- **Jarraipen Batzordeak: Ikastetxean** (zuzendaria, lan prebentzio arduraduna, gurasoa, ikuskaria, Berritzeguneko erreferentzaizko pertsona) **Administrazioan** (Ikuskari Nagusia, Berritatzeko Zuzendaria, Ikastetxeko Zuzendaria, Azpiegitura, Teknologia eta Baliabide Zuzendaria eta Osasun arloko arduraduna)

## **IKASLE ZEIN IRAKASLEEN PRESENTZIA IKASTETXEAN, HAUETARA SOILIK MUGATUKO DA:**

- Eskolak ematea, ikasturteko une honetan ezinbestekoak diren jarduerak egiteko.
- Errefortzu edo errepaso saioak egiteko.
- Azterketak egiteko.
- Banakako tutoretza saioak edo orientaziokoak, beharrezko ikusten bada.
- Ebaluazioak egitea eta 20/21 ikastaroa prestatzea.
- Irakasleek eta hezitzaileek aldi horri dagozkion ohiko eginkizunak betetzea.

## **IKASLE ZEIN IRAKASLEEN IKASTETXEETAKO PRESENTZIAK, JARRAIBIDE HAUEK BETEKO DITU:**

- Irakasle bat, ikasle talde bakoitzeko.
- 15 ikasleko taldeak gehienez, betiere ikasle-postuen artean ezarritako gutxieneko tarteak bete badaitezke. Ezin izango balitz, ikasle taldea txikituko da.
- Eskola-postuen arteko tarteak: gutxienez 1,5 metro.
- Ikastetxean jende kopurua ahalik eta gehien gutxitu.

### PREBENTZIO-NEURRI OROKORRAK

- **Jantokiko zerbitzu osagarria ez da berrezarriko** ikasturtearen amaiera honetan; beraz, irakaskuntza-jarduera garatzeko ordutegi trinkoa ezarriko da.
- Salbuespenezko egoera horretan, **ikasgela bakoitzeko ikasle-kopurua murriztu** egingo da irakaskuntza presentzialean, eskola-postuen artean gutxienez **1,5 metroko tartea** sortzeko.
- Gehieneko edukiera ezarriko da hainbat gunetan, hala nola liburutegian, tailerretan, informatika-geletan, laborategietan, bilera-geletan, distantzia sozialeko arauak errespetatzeko.
- Eremu komunak edo pasabideak ahalik eta gutxien erabiliko dira leku batzuetatik besteetara mugitzeko, eta saihestu egingo da beste jarduera batzuetarako erabiltzea (solasaldiak, otorduak, kafeak, etab.).
- Jolastokia antolatzea ahalik eta ikasle gutxien egoteko, eta gizarte-urruntasuna mantentzeko gomendio zorrotzak ematea.
- Pertsonak elkartzea dakarten kirol-jarduerak egiteko zonak erabiltzea saihestuko da, beharrezkoa den gizarte-urruntzeari eutsi gabe.
- Lan-material berezia, mahaiak, ordenagailuak, telefonoa, entzungailuak, boligrafoak eta gainerako elementuak partekatzea saihestuko da, edo, partekatu behar izanez gero, erabili eta botatzeko materialarekin garbiketa eta desinfekzio sakona ziurtatuko da, erabilera bakoitzaren aurretik eta ondoren.
- .....

# MUGARRI GARRANTZITSUENAK LANBIDE HEZIKETA 1

GMLH+EMLH+OLH  
11 MAILAKO LEHEN  
EBALUAZIO FINALA //  
1 MAILAKO OHIKO  
FINALA  
2020ko EKAINAK 8

GMLH+EMLH+OLH  
TUTOREAREKIN  
ELKARRIZKETA ETA  
KALIFIKAZIOAK  
ENTREGATZEA,  
ERREKLAMAZIOAK  
2020ko EKAINAK 9


GMLH+EMLH+OLH  
ERREKUPERAZIO KLASEAK  
2020ko EKAINAK 10-11-12-15 ETA 16

GMLH+EMLH+OLH  
AZTERKETA FINALAK EGITEA  
2020ko EKAINAK 17-18-19-22 ETA 23

GMLH+EMLH+OLH  
LEHEN MAILAKO 2.  
EBALUAZIO FINALA  
//1 MAILAKO  
EZOHIKO FINALA  
2020ko EKAINAK 25

GMLH+EMLH+OLH  
TUTOREAREKIN  
ELKARRIZKETA ETA  
KALIFIKAZIOAK  
EMATEA  
2020ko EKAINAK 25

GMLH+EMLH+ OLH  
ERREKLAMAZIOAK  
2020ko EKAINAK 26



2020ko EKAINA

# MUGARRI GARRANTZITSUENAK

## LANBIDE HEZIKETA 2

LANTOKIKO PRESTAKUNTZA +PROIEKTUA” MODULUAREKIN JARRAITZEN DUGU ONLINE, BAINA ASTEAN EGUN BATEZ IKASTETXEKO JARDUERA PRESENTZIALEZ OSATUKO DUGU


2

2020ko EKAINAREN 23ra ARTE

LANTOKIKO PRESTAKUNTZA ENPRESAN EDO LANPOSTUAN

2

2020ko EKAINAREN 23ra ARTE



2020ko EKAINA



### ANTOLAKETA-NEURRI OROKORRAK

Gizarte-urruntzea bete ahal izateko, honako hau gomendatzen da:

- Eskola-jardunaldiaren hasiera eta amaiera mailakatzea. Ikastetxeetako sarrerak eta irteerak antolatu beharko dira, pilaketak saihesteko. Mailaz mailako sarrera bat ezarri ahal izango da, maila desberdinetako ikasleak gurutzatu ez daitezen.
- Ikastetxeak sarrera bat baino gehiago baditu, sarrera zatituta antolatzea eta norabide bakarrekoa izatea.
- Ikastetxearen tamainaren arabera, ordutegi trinkoan egingo den aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera antolatzeko, egin beharreko ikastaroen eta programaren arabera hauta daiteke txandakako egunetan bertaratzea, prestakuntza eta tutoretza-jarduerak konbinatuz, eta aurrez aurreko jarduera online egiten denarekin konbinatuz.
- .....